

Lau ikerketa akademikorekin dator artikulu solteen zenbaki hau. Laurek egungo auziak jorratzen dituzte eta, aldez edo moldez, bertzetan edo azpimarretan, elkar ukitzen dute. Laurak –LGTB\* mugimendua, zinema euskaraz, nerabeak eta euskara, eta hizkuntza gutxitutako hitzun askotarikoak eta euskara– emantzipazio edota normalizazio prozesuez ari dira, gutxituen ahalduntzeaz, berriz, egungo gizarte neoliberal merkantilizatu eta hegemonistaren markoan.

Jokin Azpiazu soziologoak, esate batera, LGTB\* mugimenduaren eta norbanakoen identitateen eta subjektu politikoen eraikuntza, agenda gaitasun edo eragiletza moduak eta hainbat borroken arteko aliantzak nola gertatzen diren eta gertatzen ez diren aztertu du; horretarako, egungo marko publikoaren diseinazioa egin du, non kapitalismo arrosa –LGTB\* mugimendua kontsumo nitxo gisa eratu–, politiken instituzionalizazio prozesuak –bere ekarpen normalizatzaile baina sarri egiteko modu bertikalizatuekin eta murrizketekin– eta neoliberalismo gero eta indartsuagoa –merkantilizazioa dela bide, hiperindibidualizazioa eta hiperidentifikazioa bultzatuz, despoltizazioa eraginez– diren jokalekua. Azpiazuren ikerketak zer pentsatua ematen du, ez soilik LGTB\* mugimenduaren, subjektu politikoen eraikuntzaren, eragiletzaren eta aliantzen problematizazioaren gainean, baita beste emantzipazio mugimendu askoren eragiletza moduen gainean ere.

Jaime Altuna antropologoak, nerabeak eta euskara gaitzat hartuta, bi osagarriak eta bien artean sortua dugun ideologia problematizatzen du. Nerabea subjektu ‘problematiko’ gisa definitzean, eta, euskarari dagozkiola, gazteek ez dutela euskaraz egiten eta egiten dutenean ‘gaizki’ egiten dutela zabaldua dagoen usteak ez dirudi hizkuntzaren biziberritze prozesuan gazteek joka dezaketen paper aktiboan laguntzen duenik. Ikerketa aberatsa da Altunarena, besteak beste, euskararen hautua eta genero eraikuntza zertan lotzen diren azaltzen duelako, eta ‘gazteen auzi’ gisa mahaigaineratzen den hori ‘helduen auzia’ delako.

Graxi Irigarai politologoak Ipar Euskal Herrian euskarazko zinema zertan den du aztergai, azkenaldian zinema euskaraz egiten hasi

den belaunaldi bat loratu delako. Loratu non eta nola, Frantziako marko politiko linguizida eta glotofobikoan arnasa hartzen duen zinemagintza sistema erabat kontra duela. Hizkuntza hegemonikoaren naturalizazioak aurrejuzgu ideologikoa politika gutxiesle eta iraingarriak eta, horrenbestez, laguntza eta baliabide materialen ukoa dakartza bete-betean. Marko horretan euskarazko zinema sortu, zuzendu, ekoiztu eta zabaltzeko abiatu den mugimendua tokiko erakunde publikoen sostengua aktibatzeko lanean ari da orain.

Leire Amenabar gizarte psikologoa Euskal Herrian diren hizkuntza gutxitudun komunitateen arteko lankidetzaren beharrak eta aukerak ari da ikertzen, hau da, euskal hiztunen eta nagusiki migrazioak ekarri dituen hizkuntza minorizatuen arteko aliantza eta lankidetzaren beharraz. Izan ere, Amenabarrek azpimarratzen duenez, «hizkuntza-komunitate gutxituen arteko lankidetzaren garrantzia onartzean, komunitate guztien parte hartzea, eraldaketa eta bizi-garritasuna bultzatzeko konpromisoa hartzen da».

Shu Otero, Joanes Igeregi eta Cira Crespo Jakineko 'egoiliar finkoek', artikulu banatan, munduari ez bi ez hiru ez lau bira eta birarazte ematen diote. Eta, zenbakia ixteko, Dom Campistronen azken kontrazala, Ekhi Lambert musikariari zein bere buruari eskainia. Azken kontrazala eta azkena. Mila esker, Dom. Hurrengo zenbakiak Jakinen bidezidor betiko baina berriua azaleratuko du.